

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 2014an erretiratutako edo hildako 510 enplegatu publiko omendu ditu

Diploma bat jaso dute, eta bertan Gobernuak beren lanean buru-belarri aritu izana eta erakutsitako profesionaltasuna aitortzen die

Lunes, 02 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak 2014an erretiratutako edo hildako Foru Administrazioako [510 enplegatu publiko](#) omendu ditu gaur, astelehena. Haien lana aitortzeko intsignia eta diploma bana eman zaizkie.

Baluartean Nafarroako Kongresuen Jauregi eta Auditorioan egindako ekitaldian, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina izan da, bai eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás eta Funtzio Publikoko zuzendari nagusi Gregorio Eguilaz ere.

Bere [agerraldian](#), Barcina Lehendakariak "zuetako bakoitzak zuen lanpostutik komunitatetaren mesedetan egindako lan garrantzitsua" eskertu eta aitortu ditu. Gainera, zorionak eman dizkie beren bizitzan garai berri bati ekiten dietelako, "lan-jarduera batek dituen loturak eta exijentziak alde batera utzita", eta etorkizun onena opa die. Azkenik, "norberaren osotasun, gaitasun profesional eta zerbitzurako espirituaren eredu direla" azpimarratu du, "eta hori, zalantzarik gabe, Nafarroak etorkizun hobea izateko bultzada dela".

Omenduek Nafarroako ezkutua duen intsignia eta diploma bat jaso dituzte, eta bertan Foru Gobernuak beren lanean buru-belarri aritu izana eta erakutsitako profesionaltasuna aitortzen die.

510 omenduetatik, 288 emakumeak dira eta 211 gizon. Haietatik, 209 Osasun-arloari atxikita zeuden, 188 Hezkuntzari, 105



Barcina Lehendakaria ekitaldira bertartutakoei hitz egiten.



Erretiroa hartutako emakume bat intsignia eta diploma jasotzen.


Administrazioko erdiguneari eta 8 Justiziari. 11 pertsona hil egin ziren beren lan-bizitza amaitu gabe.

Aitorpen-ekitaldi hori 1985. urtetik egiten da. Iaz 528 langile omendu ziren, eta aurrekoan, 603.

Galería de fotos



Ekitaldira bertaratutako jendea.



Baluartan egindako omenaldiaren une bat.